

HIESa fenomeno sozial gisa: irudikapen sozialen dinamikari buruzko ikerketa bat

Oihane Peña, Leire Orella, Ainhoa Saiz, Ainhoa Olaizola, Ana Jesus Salaverria Larrarte, Arrate Agirrezabal, Jose Francisco Valencia
Euskal Herriko Unibertsitatea

HIESaren irudikapen sozialen dinamiken emaitzak aurkezten dira lan honetan, Doise-ren (1993) Eredu Trifasikoaren bitartez. 130 subjekturen lagina hartu zen eta, galdera irekiek —HIESaren esanahia— eta itxiek —HIESaren emozioak (Echebarria *et al.*, 1991), kausak eta arriskua (Petrillo, 1996)— osaturiko galde-sorta erabili zen. Lehenengo, KFAren bidez HIESari buruzko kontzepzio partekatuak aztertu dira, eta ondoren norbanakoen kokapenak, KFA eta Faktore Analisiaren bidez. Azkenik, kokapenen ainguraketak ikertu dira bi elementuren bidez: hitzen asoziazio askearen estimuluak KFAren bidez aztertuz (HIESa, HIESdun pertsona, Drogazalea eta Homosexuala) eta Analisi Diskriminatzailearen bitartez. Emaitzen arabera, HIESaren printzipio artikulatzaileen kontsentsuak norbanakoaren kokapenetan heterogeneitatea ahalbidetzen du, eta 3 subjektu-talde agertu dira: estereotipatuak, gupidatsuak eta kontserbadoreak. Azkenik, norbanakoen arteko kokapenak HIESarekin erlazionaturiko uste-sistemarekiko atxikimenduaz ezaugarritzen dira: batetik, homosexualitateari eta drogazaletasunari buruzko diskurtsoekin, eta, bestetik, HIESaren emozio, kausa eta arrisku-hautematearen printzipio antolatzaileekin.

Results of the dynamics of social representations about AIDS are through the Three-Phase model proposed by Doise (1993). A questionnaire with open —about the meaning of AIDS— and closed —emotions (Echebarria et al 1991), causes and risk of AIDS (Petrillo 1996)— questions was provided to 130 subjects. Firstly, shared conceptions on AIDS were analyzed by means of the CFA. Later on individual positioning, through CFA as well as Factor Analysis. Finally the anchoring of positioning were analyzed by means of CFA of both free associations (AIDS, Person with AIDS, Drug addict and Homosexual) and Discriminant Analysis. Results showed that the consensus on the organizing principles of AIDS allowed heterogeneity in the individual positionings, appearing three groupings: Stereotyped, Compassionate and Conservative. Finally, interindividual positionings are characterized by the adhesion to related believe systems: discourses on homosexuality and Drug addiction on the one hand and organizing principles of perceptions of risk, causes and emotions of AIDS on the other.

1. Sarrera

1981. urtean gaixotasun baten birusa identifikatu zen lehen aldiz, eta gaixotasun honek 20 urtetan pandemia ezaugarria bereganatu du: HIESa (Hartutako Inmunoeskasiaren Sindromea). 1991. urtean munduan 10 milioi pertsona ziren seropositiboak, 2000. urtean, aldiz, ONUren iritziz (Onusida, 2001), 36 milioi izan ziren HIESdunak.

Bere 20 urteko historian, HIESak ikerketa ugari sorrarazi du, bere gaixotasun-nolakotasunarengatik eta maila sozial, pertsonal eta biologikoan dituen ondorioengatik. Gainera, ikerketa-lerro hau multidiziplinarra eta multimetodologikoa da.

HIESak dituen ondorioek, gaixotasuna izateaz gain, fenomeno sozial bihurtzen dute. Gainera, gaixotasunak duen gailentasun soziala aintzat hartuta, ikerketarako egokia da Irudikapen Sozialen (IS) marko teorikoa erabiltzea.

Bide horretan, HIESaren fenomenoak ulertzeko Irudikapen Sozialaren Teoria (IST) erabili izan duten autoreak ugariak dira, eta aipatzekoak dira besteak beste, Markova eta Wilkie-ren lana (1987), Echebarria eta bestek egindakoa (1991), Paez eta besterena (1991), Joffe-ren lanak (1995, 1996, 1997) eta Petrillo-rena (1996).

IST kontzeptua Moscovici-k sortu zuen 1961ean. Harrezkero Psikologia Sozialaren arloan ikerketa ugari sorrarazi du (berrikuspenerako ikus De Rosa, 1994; Wagner, 1994), hurbilpen ez positibista eta ulerkerrean oinarrituz, eta fenomeno sozialaren interpretazioak izan ditu aztergai.

ISa komunitate edo talde bati dagokion fenomeno kolektiboa da, eta komunitatekideen eta taldekideen arteko eguneroko elkarrizketetan eta jardueretan eraikitzen da. Hain zuzen ere, ISak «funtzio bikoitza duten balio, uste eta praktika sozialak dira: alde batetik, nolabaiteko ordena ezartzen dute, pertsonak beren mundu sozialean eta materialean —menperatzeko— orientatzea ahalbidetzen dituztelarik; eta bestetik, komunikazioa errazten dute; zeren giza elkarrekintzarako eta norbanakoen nahiz taldeen mundua eta beren historia anbiguotasunik gabe sailkatzeko eta izendatzeko ere kode bat eskaintzen baitute» (Moscovici, 1979: 18). Laburbilduz, Doise eta besteren lana (1993) jarraituz, irudikapen sozialak taldeen eta norbanakoen arteko erlazio sinbolikoak antolatzen dituzten printzipioak izango lirateke.

IS objektu sozial nabarmenen, norbanakoen eta taldeen “eraikuntza-kidetzak” da, zeinak dagokion objektuari aurre egitean elementu kognitibo eta afektuzkoak ere baitakartza (Wagner *et al.*, 1996; 2002).

HIESa bezalako fenomeno sozial baten agerpenak, elementu berria izaki, mehatxagarria eta hasieran arrotza denez, pertsonen bizitzak asaldatu egiten ditu, eta sinbolikoki nahiz materialki aurre egin behar zaio (Moscovici, 2006; Wagner, Valencia eta Elejabarrieta, 1996). Beraz, aurre-egite materiala zientzialarien eginbeharra den bitartean, aurre-egite sinbolikoa egunerokotasuneko pertsonen eginbeharra da, eta horixe da ISen ikerketen objektua. Era horretan, aurre-egite sinbolikoa bi prozesuren bitartez egiten da: ainguraketaren eta objektibazioaren bitartez (Wagner, 1998; Wagner *et al.*, 1999; 2002) hain zuzen ere.

Fenomeno berri eta ezezagun bati aurre egiten diogunean gertatzen da ainguraketa, eta prozesu horren bitartez, objektu ezezagunak fenomeno ulergarri interpretatzen eta alderatzen dira. HIESaren ISen ikerketan, zenbait autorek honako hau ondorioztatu izan du, pertsonen besteen arabera (Otherness) edo iraganen jasandako gaixotasunetan (Joffe, 1997) ainguratzen dutela HIESa. Era berean, Paez eta besteren (1991b) ikerketaren antzera, HIESa ez-ohikotasunean —arriskutalde klasikoekin erlazionatuz: prostituzioan jardun dutenak, homosexualak, BPDE (Bideti Parenteraleko Drogen Erabiltzaileak)— ainguratzen da; Petrillo-ren (1996) ikerketan gizarteko desbideratze-kategoriak aipatzen dira.

Objektibazioaren bitartez, iraganeko ideien lokarri abstraktuak eduki mental zehatz bihurtzen dira. Ezagutza abstraktua eguneroko diskurtsora egokitzen da baliabide konkretu eran: irudiak, sinboloak, metaforak eta abarretan (Wagner *et al.*, 1995). Horrela, Joffek (1997) dio objektibatze-prozesua praktika perbertsoen konbinaketa batean gertatzen dela; eta praktika horiei Bekatu Koktela (Sin Cocktail) deitzen die. Petrilloren ikerketan, gaixotasunaren umore-irudikapenak agertzen dira eta jokaera antihigienikoak ere bai. Zentzu berean, Paez eta bestek (1991b) aurkitua zuten HIESaren irudikapen soziala bi printzipio antolatzaileen inguruan giltzatzen zela: erruduntzat hartzearen aldeko kontserbadorismoaren vs liberalismo ez-estigmatzailearen printzipioetan hain zuzen ere.

Markovaren ustez (2000), aurreko bi prozesu horiek, ainguraketa eta objektibazioa, bata bestearen osagarriak dira, eta ainguraketa egonkortasunera bideratzen da eta objektibazioa aldaketara.

Ikerketa honetan, HIESaren Irudikapen Sozialei buruzko ikerketa enpiriko baten emaitzak aurkeztuko dira. ISaren fokalizazio hau nabarmenago bihurtzen da, ikerketa honen objektu-populazioagatik, gazteak baitira. Horrela, 90eko hamarkadako HIESari buruzko jarreraren ikasketen aurrean —zeinen arabera, populazio honetan HIESaren prebentzioari buruzko ikuskera estereotipatuak aurkitzen baitziren—, ISaren fokalizazioak lagundu egin du Pandemia honen esanahia hobeto ulertzen, fokalizazio dinamikoago honen bitartez (ikus Morin eta Verges, 1992). Hain zuzen ere, aurre-egite sinbolikoaren prozesuak ikertzea da gure helburua, Doise eta besteren Eredu Trifasikoaren bidez (Doise, Clemence eta Lorenzi Cioaldi, 1993). Eredu horren arabera Irudikapen Sozialak taldeen eta norbanakoaren arteko erlazio sinbolikoen antolakuntza-printzipioak izango lirarteke. Norbanakoek eta taldeek elkarren artean erlazionatzeko behar dituzten erreferentzia-marko komunak lirarteke, eta komunikazio-sistemen bidez sortzen dira.

Eredu Trifasikoak 3 hipotesiren bidez aztertzen ditu ISak. Lehenik, aztertuko den objektu sozialari buruz, gure kasuan HIESari buruz, partekatua den uste-sistema jakin bat dagoela onartzen da. Uste-sistema hori antolatuta egongo litzateke, eta objektibazioa legokioke (Moscovici, 1961). Bigarrenik, ikuskera partekatu horiek ez dituzte berdintasunak bakarrik eragiten norbanakoen kokapenetan. Hau da, norbanakoen kokapenen printzipio antolatzaileak badaudela onartzen da. Azkenik, hirugarren hipotesia ainguraketa-prozesuari legokioke, eta zera adierazten du: norbanakoen arteko kokapenen aldaketa sistematikoak aztertzen ari den objektu sozialarekin erlazionatutako errealtate sinbolikoan ainguratzen direla.

Gure ikerketan, lehenengo hipotesia, HIESari buruzko ikuskera partekatuari dagokionez, Korrespondentzien Faktore Analisia (KFA) erabiliz aztertu dira. Bigarren hipotesia norbanakoaren kokapenei dagokionez, Faktore Analisisaren bitartez aztertuko dugu. Gure kasuan, HIESarekin erlazionatutako uste-sistemen elementu antolatzaileen Faktore Analisisiak egingo ditugu: arriskuaren hautematea, kausak (Petrillo, 1996) eta emozioak (Echebarria *et al.*, 1991). Azkenik, hirugarren hipotesia, erlazionaturiko sistema sinbolikoen ezberdintasun indibidualen ainguraketari dagokionez, bi estrategiaren bidez egingo dugu: alde batetik, hitzen asoziazio askeen bidez (HIESa, HIESdun pertsona, Homosexuala eta Drogamenpekotasun estimuluak aztertuz) eta, bestetik, Anlisi Diskriminatzailearen bidez.

2. Metodoa


Donostiako Batxilergo Institutu bateko eta Psikologia Lizentziaturaren lehen kurtsoko 130 ikasleri galde-sorta bana banatu zitzairen (%60 emakumezkoak eta %40 gizonezkoak).

Galde-sortak bi zati zituen. Lehenengo zatiak hitzen asoziazio askearen eginbeharra zuen eta bertan, galdera irekien bitartez, zenbait estimuluren aurrean (HIESa, HIESaz infektaturiko pertsona, Drogazalea eta Homosexuala) burura etortzen zitzaizkien hitzak idatz zitzaizen eskatu zitzairen gazteei. Bigarren zatiak, bere aldetik, elkarren artean bereziak ziren hiru alor zituen: lehenengoan, 36 egoera desberdinetan HIESa kutsatzeko arrisku-maila adieraz zezaten eskatzen zitzairen gazteei, eta horretarako Petrilloren (1996) eskala erabili genuen. Horrek 1etik 4raino hartzen zuen (1 “ezer ez” eta 4 “oso”) eta Likert erakoa zen. Gainera norberaren eta besteen arrisku-mailari buruzko galderak egin ziren formato berean. Bigarrenean HIESaren Kausen eskala erabili zen, Petrilloren (1996) ikasketatik hartua, eta 1etik 4raino hartzen zuen (1 “inola ez ados” eta 4 “oso ados”) eta Likert erakoa zen. Azkenik, Echebarria eta bestek (1991) erabiliriko 14 emozioak noraino sentitzen zituzten ere eskatu genien, HIESa duen pertsonari dagokionez hain zuzen ere. Hor erantzun-aukera Likert erakoa izan zen 7 puntukoa (1 “batere ez” eta 7 “oso”).

3. Emaitzak

3.1. Uste partekatua

Lehen hipotesia frogatzeko asmoz, HIESa estimulari emandako erantzunak Korrespondentzia Faktore Analisisira (SPAD-T, Lebart & Salem, 1994) ezarri ziren. KFAren “gizabanako bider hitzak” emaitzen matrizea 1. irudian aurkezten da.



1. irudia. HIESaren Korrespondentzia Faktore Analisia, subjektuen taldekatzearen proiektioarekin. (C1= Estereotipatuak; C2= Gupidatsuak; C3= kontserbadoreak)

Lehen faktorea, bere polo negatiboan *bizitza, zoritxarra eta itxaropena* hitzek definitzen zuten eta polo positiboan *odola, xiringa eta sexua* hitzek. Laburtuz, esan genezake lehen faktore-ardatzak HIESaren ondorioak —bere polo negatiboan— eta HIESaren kausak —polo positiboan— oposatzen dituela.

Bigarren faktorea polo negatiboan *harremanak, ospitalea eta bizitza* hitzek definitzen zuten; bere polo positiboan, aldiz, *ahula, sufrimendua, isolamendua* hitzek. Bigarren faktore-ardatzak elkarren artean oposatzen ditu HIESaz kaltetutakoari buruzko ikuspegi barne eta konpasiboa —bere polo positiboan— eta kanpoko eta instrumentala den ikuspegia —bere polo negatiboan— elkarren artean.

3.2. Norbanakoen kokapenak

Ondoren, eta bigarren hipotesia frogatzeko asmoz, subjektuen Sailkapen Hierarkikoaren Analisia egin genuen (SPAD-T, Lebart & Salem, 1994), emaitzen erdiguneak alde zuzenetik aurkezturiko Korrespondentzia Faktore Analiaren lehen bi faktore-ardatzak gurutzaketan proiektatu zirelarik (ikus 1. irudia). Analiak, subjektuen hiru talde ekoitzi zituen. Lehen taldea “estereotipatuak” (C1) izenda daiteke, gaixotasunaren irudi estereotipatuari dagokion neurrian, *droga, homosexualitatea, presebatiboa, xiringa eta sexua* hitzen inguruan kokatzen baita. Bigarrena “gupidatsuak” (C2) izenda daiteke, urrikalmenduarekin loturiko emozioei dagokien neurrian, *tristezia, zoritxarra, laguntza eta beldurra* hitzen inguruan kokatzen baita. Eta azkenik, hirugarren taldea, “kontserbatzaileak” (C3) dei daiteke, irudi moralistari dagokion neurrian, *marjinazioa, sexua eta odola* hitzen inguruan kokatzen baita.

3.3. HIESaren Irudikapen Sozialen Ainguraketa

Hirugarren hipotesia frogatzeko asmoz, bi estrategia desberdin erabili genituen. Lehen estrategia hitzen asoziazio askearen estrategian oinarritzen da (ISaren analisi-mota hauetarako ikus Di Giacomo, 1984; De Rosa, 2001, besteren artean), zeina tradizionalki HIESarekin lotuak izan diren diskurtsoekin: HIESa, HIESa duen pertsona, Homosexuala eta Drogazalea (Adibidez, Echebarria *et al.*, 1991) erabili baitzen. Bigarren estrategia Anali Diskriminatzailean oinarritzen da, zeinaren bitartez korrespondentzia-analiaren taldekatzeak HIESarekin zerikusirik duten arrisku-mailaren hautematearen, gaixotasunaren kausen eta emozioen printzipio artikulatzaileekin elkartuko baitira.

3.3.1. Elkarri loturiko diskurtsoen ainguraketa

HIESak beste diskurtsoekin duen erlazioa aztertzeko asmoz, lehenik, arestian aipaturiko lau estimuluei erantzunez gazteek emandako hitzen eduki-analisia egin zen, eta emaitzak 27 kategoriatan taldekatu ziren, (ikus 1. taula).

	HIESA	HOMOSEXUALA	HIESDUNA	DROGAZALEA	GUZTIRA
Heriotza	103	0	48	25	176
Gaixotasuna	114	2	58	47	221
HIESA	20	30	8	21	79
Onarpena	38	72	61	35	206
Gertukoak	11	44	11	9	75
Tristura	53	14	79	49	195
Beldurra	39	8	22	16	85
Ardura	33	13	25	1	72
Itxaropena	16	3	17	1	37
Baztertzea	40	91	53	49	233
Tolerantzia eza	1	26	3	6	36
Pertsona	8	38	17	15	78
Zoritxarra	13	0	12	6	31
Sexua	25	53	7	0	85
Arriskua	14	7	8	8	37
Kulpa	6	0	10	2	18
Gizartea	6	65	14	15	100
Informazioa	10	5	5	4	24
Baztertzea	21	67	12	3	103
Droga	61	0	7	95	163
Ondorioak	27	11	36	81	155
Sinboloak	5	7	7	5	24
Arazoa	19	20	13	54	106
Desberdina	0	53	0	1	54
Talde-adjetiboak	0	9	0	38	47
Adjetibo indibidu	0	0	16	40	56
Besteak	19	36	24	47	126
Guztira	702	674	573	673	2622

1. taula. 4 estimuluen hitzen asoziazio askeari dagozkion kategorien maiztasunen emaitzak

Ondoren hitz-asoziazio askeen estrategiaren frekuentziak KFAn sartu ziren, eta emaitzak 1. irudian aurkezten dira.

KFAk hiru faktore ekoitzi zituen, eta lehen biek inertiaren %91,23 azaldu zuten.

Lehen faktoreak inertiaren % 60,43 azaldu zuen eta —modalitate bakoitzean faktorearen konposiziorako ekarpen esanguratsuak zirenak bakarrik kontuan hartuz— polo positiboan ondoko kategoriek definitu zuten: *desberdina*, *talde marjinala*, *azalpen sozialak*, *sexua*, *harreman hurbilak* eta *intolerantzia* hitzek. Polo negatiboa, aldiz, ondoko kategoriek definitu zuten: *droga*, *gaixotasuna* eta *heriotza* hitzek. Era berean, eta lehen faktore honen zutabeei dagokienez, Homosexual estimuluak definitu zuen polo positiboa, eta HIESa, HIESa duen pertsona eta Drogazale estimuluek polo negatiboa.

Bigarren faktoreak inertiaren %30,80 azaldu zuen, eta —aurrean bezala, modalitate bakoitzean faktorearen konposiziorako ekarpen esanguratsuak bakarrik hartuz— polo positiboa *heriotza*, *kontuz* eta *itxaropena* kategoriek definitu zuten; polo negatiboa, aldiz, taldekoen eta norbanakoen *adjektibo negatibo*, *droga*, *ondorio negatibo* eta *arazo* kategoriek. Era berean, eta zutabeei dagokienez, bigarren faktore honen polo positiboa HIESa eta HIESa duen pertsona estimuluek definitu zuten eta polo negatiboa Drogazale estimuluak.

Laburbilduz, HIESa eta HIESa duen Pertsona estimuluak DROGAZALE eta HOMOSEXUAL estimuluetatik bereizten direla esan daiteke. Gainera, lehen estimulu biak, etorkizunari begira batetik nolabaiteko anibalentziak ezaugarritzen ditu (heriotza eta itxaropena), eta, bestetik, gaixotasun-definizioak ere bai; praktika prebentiboekin erlasionaturik agertzen baitira. Drogazale estimulua taldeko definizio negatiboetatik hurbil aurkitzen da eta ondorio negatibo sozial nabarmena duen arazotik ere bai. Azkenik, Homosexual estimulua desnaturalizazio (desberdina) kategoriaz definitzen da, sexu-praktikez, talde marjinal eta intolerantzia bezalako adskripzio estigmatizatzaileez, eta gizarteari dagozkion azalpenez ere bai.

3.3.2. HIESaren Arrisku-hautemateak, kausak eta Emozioak

HIESaren Irudikapen Sozialen ainguraketaren bigarren estrategia hau aztertze-ko, lehenengo arrisku-hautemateen, kausen eta emozioen pritzipio antolatzaileen analisiak egin genituen. Horretarako neurbide horiek Faktore Analisisian sartu ziren, eta ondoren azalduko ditugu emaitzak.

Lehenengo *Arrisku Sozialeko Hautemateari* dagozkion itemekin Faktore Analisisia egin zen (Varimax Errotazioz), eta emaitzek bariantzaren %61,47 azaltzen zuten bost faktore esanguratsu ekoitzi zituzten.

Lehen faktorea ondoko itemez osaturik zegoen: europarra, italiarra, espainola, euskalduna, madrildarra, gizonezkoa, emakumezkoa eta afrikarra. Faktore honek bariantzaren %19,31 azaldu zuen eta *Pertenentzia-kidetzari* zegokion.

Bigarren faktoreari ondoko itemak lotu zitzaizkio: prostitutak, prostitutengana joaten dena, bisexualak, heterosexualak, homosexualak, toxikomanoak eta homosexualekin ibiltzen dena. Faktore honek bariantzaren %12,01 azaldu zuen eta *Arrisku-portaerako pertsonak* izendatu genuen.

Hirugarren faktorea ondoko itemez osaturik zegoen: dentista, kirurgialaria, ebakuntza medikoa jasaten duena, akupuntorea, pertsona ospitalizatua, hemofiliakoa eta seropositiboekin bizi dena. Faktore honek bariantzaren %11,48 azaldu zuen eta *Arrisku-Profesioko kategoria* izendatu genuen.

Laugarren faktorea ondoko itemek osatu zuten: lagunekin atera, ur bedeinkatua hartu elizan, adimeneko gaixoa, pertsona desfaboratua, kirola egiten duena eta pertsona deprimitua. Faktoreak bariantzaren %11,22 azaldu zuen eta *Portaera eta Harreman Sozialak* izendatu genuen.

Azkenik, bosgarren faktorea ondoko itemek definitzen zuten: besteekin mahai-tresnak partekatzen dituen, ahoz-ahoko arnasketa egiten duena, besteen hor-tzetako eskula erabiltzen duena eta komun publikoak erabiltzen dituen. Faktore honek bariantzaren %7,44 azaldu zuen eta *Higienearen aurkako portaerak* izan- datu genuen.

Bestalde, *HIESaren Kausen* itemetan Faktore Analisia egin genuen (Varimax Errotazioz), eta emaitzek lau faktore esanguratsu agerrarazi zituzten, eta barian- tzaren %49,25 azaldu zuten.

Lehen faktorea ondoko itemek osatu zuten: ezkondu aurreko sexu-harremanak, ezkontzatik kanpoko sexu-harremanak, ideologia feminista, homosexualen aurreko jarrera tolerantea, ingurunetik eta familiarik kanpoko harremanak. Faktore honek bariantzaren %16,49 azaldu zuen eta *Sexu harremanak* izendatu genuen.

Bigarren faktorea ondoko itemei loturik zegoen: deabruaren interbentzioa, jaun- goikoaren gaztigua, gaixotasun psikosomatikoa eta adimen-gaixotasuna. Faktore honek bariantzaren %13,19 azaldu zuen eta *Kausa Irrazionalak* izendatu genuen.

Hirugarren faktorea honela osaturik zegoen: marjinazio soziala, kausa ekono- mikoak, zoritxarra eta ingurune-kutsadura. Faktore honek bairantzaren %11,23 azaldu zuen eta *Alderdi Soziokulturalak* izendatu genuen.

Azkena, laugarren faktorea ere agertu zen, ondoko itemek osatua: bizioa eta degenerazioa, kutsadura eta transmisioa, organismo-defentsaren defizita eta droga-hartzea. Faktore honek bariantzaren %8,33 azaldu zuen eta *Desbiderazio Sozialeko Jokabideak* izendatu genuen.

Azkenik, eta ainguraketaren esanahien printzipio antolatzaileen elementuen azterketa amaitzeko, HIESak sustatzen dituen *emozioen* itemak faktore analisisian sartu genituen; emaitzek hiru faktore ekoitzi zituzten, eta elkarren artean barian- tzaren %48,26 azaldu zuten.

Hiru faktore horietatik bik emozio negatiboak elkartzen dituzte eta batek emozio positiboak. Lehen faktorea, besteak beste, tristezia, frustrazioa, amorrua, beldurra, ustekabea eta errua emozioek osatu zuten. Faktore honek bariantzaren %21,10 azaldu zuen eta *Tristeziarekin loturiko emozioak* izendatu genuen. Bigarren fakto- reak nazka, asperdura, mespresua eta lotsa elkartzen zituen. Faktore honek ba- riantzaren %15,75 azaltzen zuen eta *Nazka eta Mespresuarekin loturiko emozioak* izendatu genuen. Hirugarren faktorea itxaropena, interesa eta alaitasunak osatzen

zuten. Faktore honek bariantzaren %11,40 azaldu zuen eta *Itxaropenarekin loturiko emozio positiboak* izendatu genuen.

HIESaren Arrisku-Hautemateen, Kausen eta Emozioen printzipio artikulatzailerik, aldeztu aurretik landutako HIESaren Irudikapen Sozialeko hiru Taldekatzeekin duten erlazioa aztertzeko asmoz, Analisi Diskriminatzailea egin genuen, KFaren hiru taldekatzeak batetik eta HIESaren Arrisku-Hautemateen, Kausen eta Emozioen puntuaketa faktorialak bestetik hartu ziren. Era berean, Norberari eta Populazio Orokorriari buruzko arrisku-hautemate itemak ere analisisian sartu ziren.

Analisiak ekoitzi zituen bi funtzioak esanguratsuak izan ziren (Wilks Lambda= 0,10, $X^2(32)= 270,10$ p = 0.000 eta Wilks Lambda= 0,48, $X^2(15) =99,40$; p = 0.000; hurrenez hurren). Funtzio hauek 2. taulan agertzen diren koefizienteen arabera interpreta daitezke.

Puntuazio Faktorialak	Funtzioak	
	1	2
Tristura emozioa	,562*	,319
Kausa sexualak	,214*	-,094
Desbiazio kausak	,177*	,064
Bizitza sexualaren arriskua	,175*	,157
Jokaera sozialaren arriskua	,090*	,054
Higiene ezaren arriskua	,077*	-,007
Nazka-bazterte emozioa	,428-	-,561*
Lurralde bateko kide izatearen arriskua	,043	,457*
Lan-praktika arriskua	,060	,362*
Pertsona normalaren arriskua	,113	,252*
Nire buruaren arriskua	-,019	,238*
Itxaropen emozioa	-,023	,236*
Populazio orokorraren arriskua	,063	,123*
Kanpoko kausak	,052	-,104*
Kausa irrazionalak	,005	-,041*
	Barne-taldeak	
Taldeak	1	2
Estereotipatuak	-,991	-,752
Gupidatsuak	,277	,712
Kontserbadoreak	,993	-,992

2. taula. Ainguraketa-aldagaien puntuazio faktorialen eta batez besteko puntuazio diskriminanteen arteko korrelazioak.

Lehen funtzioaren emaitzek HIESarekin loturiko tristezia-emozioen eta kausa sexualen garrantzia baieztatzen dute, zeinak positiboki erlazonaturik baitaude “Kontserbatzaile” taldearekin eta negatiboki “Estereotipatu” taldearekin. Bestela esanik, lehen funtzio honek tristezia-emozioan oinarrituriko HIESaren diskurtsoa aurkezten du, zeinak sexu-harremanen eta desbiderazio sozialaren azalpenak hobesten baititu. Gainera, diskurtso hau positiboki erlazonatzen da “Kontserbatzaileen” kokapenekin eta negatiboki “Estereotipatuen” kokapenekin.

Bigarren funtzioak lurralde-kidetzaren, praktika profesionalen, pertsona normalaren eta niaren garrantzia agerrarazten du; gainera, emozio positiboekin lotuta dago eta nazka-mespretxu emozio negatiboak errefusatzearekin ere bai. Aurrekoaz gain, diskurtso hau positiboki erlazonatzen da “Gupidatsuen” taldearekin eta negatiboki “Kontserbatzaile” eta “Estereotipatuen” taldeekin. Beste hitz batzuetan esanik, bigarren funtzio honek emozio positiboetan eta arrisku-hautemate anizkoitzetan oinarrituriko diskurtsoa aurkezten digu, zeinak mespretxuko emozioetan eta kanpoko kausa edo azalpen irrazionaletan oinarritzen den diskurtsoari aurre egiten baitio. Gainera, diskurtso hau positiboki erlazonatzen da HIESaren “Gupidatsuen” kokapenarekin eta negatiboki “Estereotipatu” eta “Kontserbatzaileen” kokapenekin.

4. Ondorioak

Orokorrean, ikerketa honen emaitzek planteamendu interesgarriak dakartzate HIESaren Irudikapen Sozialen ikasketarako, bai HIESari buruz partekatuak diren esanahi-usteei dagokienez, bai norbanakoen kokapenei dagokienez, bai eta erlazonaturiko diskurtsoen ainguratzeari dagokionez ere.

Objektu sozialari buruzko jakintza partekatuari dagokionez, gazteen lagin honetan HIESari buruzko esanahi-sistema partekatuak bi dimentsio nagusiren inguruan eratzen direla aurkitzen dugu: lehen ardatz batek HIESaren ondorioak eta HIESaren kausa konkretuak oposatzen ditu, eta bigarren ardatzak HIESaren barne-ikuspegia eta gupidatsua eta HIESaren kanpo-ikuspegia eta instrumentala oposatzen ditu elkarren artean.

Norbanakoen kokapenei dagokienez, Saillapen Hierarkikoaren Análisiak hiru subjektuen kokapenen taldekatze garbiak aurkitu izan ditu: “Estereotipatuak”, “Gupidatsuak” eta “Kontserbatzaileak”. “Estereotipatuen” taldea elementu objektibo konkretuei dagokie HIESa aipatzean. Bigarren taldea, “Gupidatsuak” izendaturikoa, urrikalmenduari dagokio, laguntza aipatzen dute, zoritxarra eta HIESaren kanpoko kausak ere bai; horrela, HIESa duten pertsonen egozten zaien erantzukizuna arintzen diete. Azken taldean, “Kontserbatzaileak” izendatua, HIESari dagozkion elementu moralistak aipatzen dituzte, sexua eta odola adibidez. Orokorrean, beraz, Páez eta besteren (1991a) ikerketarekin alderatuz gero, gure ikerketan zera aurkitzen dugu: orain dela hamar urte HIESaren kokapenen printzipio artikulatzaileak dimentsio moral kontserbatzailea eta dimentsio liberal ez-estigmatzaileak ziren bitartean, gure gazteen laginean elementu berri bat agertzen da, “estereotipatuak” izendatu duguna; gaur egungo gazteriaren elementu tipikoa, bestalde, zeina beste ikerketetan kutsabideei buruzko desinformazio handiarekin elkartuta agertzen baita (Agirrezabal eta Valencia, 2001).

HIESarekin erlazionaturiko diskurtsoen ainguraketaren elementuei dagokienez (Homosexualitatea, Drogazaletasuna) hitzen asoziazio askearen azterketak ere elementu interesgarriak agerrarazi ditu. Alde batetik, HIESa eta HIESa duen Pertsonari buruzko diskurtsoak elkarren artean estuki lotuak agertzen dira, eta, era berean, Homosexualitateari eta Drogazaletasunari buruzko diskurtsoetatik bereziak. Bestalde, hala ere, diskurtso hauetan desberdintasunak egoteak ez du esan nahi berdintasunik ez dagoenik. Horrela, lehen faktore-ardatzak HIESa, HIESaz kutsaturiko pertsona eta Drogazale estimuluak elkarren artean lotzen ditu eta Homosexual estimuluari aurre egiten diote. Bigarren faktore-ardatzak, aldiz, HIESa eta HIESaz kutsaturiko pertsona estimuluak elkarren artean lotzen ditu eta Drogazale estimuluarekin oposatzen ditu. Beste hitz batzuetan, desnaturalizazio soziala versus gaixotasuna ardatzak HIESa Drogazaletasunarekin lotzen du eta Homosexualitatearekin oposatzen du; beste ardatzak, aldiz, arazo soziala versus prebentziozko neurriak HIESa eta Drogazaletasuna elkarren artean oposatzen ditu.

HIESaren Arrisku-Hautemateen, Kausen eta Emozioen ainguraketari dagokionez, elementu hauek era garbi batean oinarritzen direla norbanakoen kokapenetan aurkitzen dugu lehenengo. Gainera, kokapen horiek HIESari buruzko kokapenekin ere erlazionaturik daudela adierazte dute emaitzek.

Norbanakoen HIESaren Arrisku-Hautematearen kokapenei dagokienez, bost printzipio antolatzaile nagusi aurkitu ditugu: Lurralde-kidetzak, arrisku-portaerako pertsonak, arrisku-profesioetako pertsonak, portaera eta erlazio sozialak eta portaera antihigienikoak. Gainera, emaitza hauek bat datoz Petrillok (1996) buruturiko ikerketarekin, non emaitzek antzeko printzipio antolatzaileak sorrarazten baitituzte. Lurralde-kidetzaren kategoriari dagokionez, kidetzako kategoriak, funtsean, lurraldekidetzaren inguruan antolatzen direla, beste kidetzako kategorietan baino gehiago adierazten dute emaitzek. Arrisku-portaerako pertsonak izendaturiko kategoriak, bestalde, bere barnean hartzen ditu kale-hizkeran arrisku-talde klasikotzat jotzen direnak, eta sexu-bizitza ez-antolatu batez ezaugarritzen diren pertsonak ere bai. Gainera, arrisku-profesioetako pertsonak elkarren artean garbiki antolaturik agertzen dira, bai eta portaera antihigienikoak osatzen duen kategoria ere eta portaera eta harreman sozialeko kategoria osatzen dutenak ere bai. Azken kategoria horrek aisialdian izaten diren portaerak hartzen ditu bere barnean, eta Petrillok (1996) zioenez, gaixotasunaren bi ikuspegi adierazten ditu: gaixotasunak, potentzialki, edozein pertsona har dezakeela, batetik; eta oso gaixotasun kutsagarriaren ikuspegia ere bai, populazioan oso barreiatuak diren portaerak diren heinean.

HIESaren Kausei dagokienez, lau printzipio antolatzaile agertzen dira: sexu-harremanak, kausa irrazionalak, alderdi sozio-kulturalak eta sexu-desbideraketako portaerak. Alde batetik, HIESaren kausa sexu-harremanetan jartzea nahikoa barreiatua dagoen hipotesi laua dela esan daiteke. Bestalde, Kausa irrazionalak dagozkie alderdi magiko, zorizko eta kanpotikoei, gaixotasunaren jatorria adieraztean. Gainera, alderdi soziokulturalak aipatzeak honako hau iradokitzen du: gizartea dela zenbait gaixotasunen jatorriaren erantzule, hain zuzen ere, arazo ekonomikoak eta testuingurua gaixotasunaren kausa gisa erabiltzen direnean. Azkenik, interesgarri deritzogu sexu-desbideraketa HIESaren kausen artikulatzaile gisa agertzea azpimarratzeari. Laburbilduz, eta orokorrean emaitzak alde aurretiko ikasketekin (Petrillo 1996, Pérez 1991b) bat datozela esan daiteke.

Norbanakoen Kokapenekin erlazonaturik, azkenik, emaitzek ondokoa adierazten dute: HIESak sustaturiko emozioei dagokienez, elkarren artean argiki bereizirik dauden hiru elementu antolatzaile agertzen direla. Lehenengo biek emozio negatiboak (tristezia batetik eta nazka-mespretxua bestetik) antolatzen dituzte eta hirugarrenak emozio positiboak (esperantza hain zuzen ere).

Bestalde, HIESaren Arrisku, Kausa eta Emozioen kokapenek HIESaren Irudikapen Sozialeko taldekatzeekin duten erlazioari dagokionez, Analisi Diskriminatzaileak harreman esanguratsuak agerrarazi zituen. Lehen funtzioak tristezia eta pena emozioetan oinarrituriko HIESaren diskurtsoa eskaintzen zuen, eta gainera, sexu-portaera nahiz desbideraketa soziala azpimarratzen zituen HIESaren kausa-azalpenetan. Lehen funtzio horrek harreman positiboak aurkitzen zituen “Kontserbatzaile”-taldekatze kokapenekin eta negatiboak “Estereotipatu”-taldekatze kokapenekin. Bigaren funtzioak, aldiz, emozio positibo eta arrisku-hautemate anitzkoietan oinarrituriko HIESaren diskurtsoa eskaintzen zuen, zeinak aurre egiten baitzion nazka-mespretxuko emozioetan oinarrituriko diskurtsoari, kanpoko azalpen eta azalpen irrazionalerik horniturik zegoelarik. Bigarren funtzio hori positiboki erlazonatzen zen HIESaren “Gupidatsu”-taldekatzearen kokapenekin eta negatiboki “Estereotipatu” eta “Kontserbatzaile”-taldekatzearen kokapenekin.

Laburbilduz, Doiseren (Doise *et al.*, 1993) ereduko errepresentazio-dinamikaren ikasketak ekarpen jakingarriak aurkezten dizkigu Irudikapen Sozialen azterketa dinamikorako. Alde batetik, HIESaren Irudikapen Sozialari dagokionez, kontsentsu-dinamiken elementu artikulatzaile interesgarriak aurkitzen ditugu, lehen hipotesian frogatzen denaren arabera. HIESaren Irudikapen Sozialek oinarri komuna edo kontsentsua izateak, hala ere, ez dakar heterogeneitate gabezia, norbanakoen kokapenei dagokienez; hain zuzen ere, hiru subjektu-taldekatzerekin frogatu denaren arabera: Estereotipatuak, Gupidatsuak eta Kontserbatzaileak. Azkenik, norbanakoen kokapenak ez dira “hutsune sozial” batean gertatzen, baizik eta kokapen hauek beste printzipio antolatzaileekin erlazonatzen dira; alegia, homosexualitatearekin eta drogazaletasunarekin erlazonaturik dauden uste-sistemekin batetik, eta HIESaren arrisku-hautemateen, kausen eta emozioen printzipio antolatzaileekin bestetik. Bestela esanik, hemen erabili izan dugun eredia beste ikasketak-alar batzuetan erabili izan bada ere, esate baterako, Giza Eskubideetan (Doise *et al.*, 1998a; Doise *et al.*, 1998b) edo Inteligentziaren ikerketetan (Amaral, 1997; Poeschl, 1998; Zubieta 2001), HIESaren Irudikapen Sozialen dinamikaren ikerketarako ere lanabes egokia da, bertan, pertsonen eta taldeen arteko erlazio simbolikoen printzipio antolatzaileak aztertzeke, non ainguraketa- eta objektibizazio-prozesuak elkarren artean estuki loturik agertzen baitira. Lanabes hau garrantzitsuagoa da gazteen HIESaren prebentzioaren arazoa aztertzeke unean; izan ere, gazteek HIESari buruz zuten informazioan agertzen ziren “konsentsuzko estereotipia” eta “akatsen” eredu teorikoek suposatzen zuten ikuspegi pasiboari aurre eginez, gazteek HIESa fenomenoaren aurrean “eraikuntza-kidetzatza” egiten dutela azpimarratzen du ikasketak-mota honek. Hau da, gazteek HIESari buruzko ikuspegi pasiboa baino gehiago, ikuspegi aktiboa eta eraikitzailea dutela erakusten du ISen ikerketak. Beraz, alde aurretiko ikerketetan agertzen ziren bi irudikapen sozialetatik, esate baterako Paez eta besteren kontserbadurismoa vs liberalismoa (1991), hemen agertzen diren hiru irudikapen sozialetarako aldaketa ulertzeko, HIESaren irudikapen soziala “hegemonikoa” eta diskurtso medikoan oinarritua

izatetik "emantzipazio"- biderako joera hartu duela (Morin *et al.*, 1992: 51) ikustea lagungarria da.

Esker ona

Autoreek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketaren Departamentuko programaren beka (2000ko martxoaren 14ko ordena) eskertu nahiko lukete, artikulu honen erredakziorako eman duen laguntzagatik.

Bibliografia

- Agirrezabal, A. & Valencia J.F. (2001): "Folk Theories about AIDS: a preliminary study on Social Representations" in *6th International Summer School on Social Representations and Communication*, Erroma, 24-26.
- Amaral, V. (1997): "Inteligência e o su desenvolvimento: Representacoes Sociais e Identidades Sociais" in M. B. Monteiro & T. Castro (Arg.) *Cada cabeça sua sentença: Ideias dos adultos sobre as crianças*, Celta Editora, Oeiras, 36-69.
- De Rosa, A. (1994): "From the theory to methateory in social representations: the lines of argument of a theoretical-methodological debate", *Social Science Information* **(33)**, SAGE, Londres, 273-304.
- De Rosa, A. & Kirchler, E. (2001): "Ambiguous images in advertising: an application of the Associative Network method" in C. Roland Lévy, E. Kirchler, E. Penz & C. Gray (Arg.) *Everyday Representations of the economy*, WUC, Viena, 19-49.
- Di Giacomo, J.P. (1984): "Alliance et rejets intergroupes au sein d'un mouvement de revendication" in A. Palmonari & W. Doise (Arg.) *L'étude des représentations sociales*, Delachaux & Niestlé, Lausanne, 118-138.
- Doise, W., Clemence, A. & Lorenzi Cioldi, F. (1993): "*The Quantitative Analysis of Social Representations*", Hemel Hempstead:Harvester Wheatsheaf, 170. or.
- Doise, W., Spini, D. & Clémence, A. (1998a): "Human rights studied as a social representations in a cross-national context", *European Journal of Social Psychology* **28**, 1-29.
- Doise, Staerke, Clemence & Savoir (1998b): "Human rights and Genevan youth: a developmental study of social representations", *Swiss Journal of Psychology* **57 (2)**, Verlag Hans Huber, Berna, 86-100.
- Echebarria, A.; Páez, D.; Valencia, J.; San Juan, C. eta Guedes, E. (1991): "Aids social representations: Contents And Processes", *Journal of Community & Applied Social Psychology* **1**, 89-104.
- Joffè, H. (1995): "Social Representations of AIDS: towards encompassing issues of power" in *Papers on Social Rrepresentations* **4**, 1-40.
- , (1996): "AIDS research and prevention: a social representational approach", *British journal of medical Psychology*, Great Britain, 169-190.
- , (1997): "The relationship between representational and materialist perspectives. AIDS and 'the other'" in L. Yardley (Arg.) *Material Discourses of health and illness*, 132-149.
- Lebart, I. & Salem, A. (1994): *Statistique Textuelle*, Dumod, Paris.
- Markova, I. (2000): "Amédée or How to get rid of it: Social Representations from a Dialogical perspective", *Culture and Psychology* **6(4)**, SAGE, Londres, 419-460.
- Markova, I. eta Wilkie, P. (1987): "Representations, concepts and social change: the phenomenon of AIDS", *Journal for the theory of Social Behaviour* **17 (3)**, 279-299.

- Morin, M, & Verges, P. (1992): "Enquete sur une representation en voie d'emancipation: le sida pour les jeunes", *Les Cahiers Internationaux de Psychologie Sociale* **15**, 46-76.
- Moscovici, S. (1961/1976): *Psychanalyse. Son Image et son Public*, PUF. P., Paris.
- , (1979): *El psicoanálisis, su imagen y su público*, Huemul, Buenos Aires.
- ONUSIDA (2001): Veinte años de VIH/SIDA: informazio orria in www.un.org
- Páez, D. eta Echebarria, A; (1991): *SIDA: imagen y prevención*, Fundamentos, Madril.
- Petrillo, G. (1996): " Représentations sociales du sida et perception des Catégories sociales "à risque", *Les Cahiers Internationaux de Psychologie Sociale* **30**, De Boeck Universite, Belgika, 58-80.
- Poeschl, G. (1998): "Processus d'ancrage et representations sociales de lintelligence", *Psicología* **12** (1), 85-100.
- Wagner, W. (1994): "Fiels of research and Socio-Genesis of SR: a discussion of criteria and diagnostics", *Social Science Information* **33**, 199-228.
- , (1998): "Social Representations and beyond – brute facts, symbolic coping and domesticated worlds", *Culture and Psychology* **4**, 43-66.
- Wagner, W.; Duveen, G.; Farr, R.; Jovchelovitch, S.; Lorenzi-Cioldi; F.; Markova, I.; eta Rose, D. (1999): "Theory and Method of Social Representations", *Asian Journal of Social Psychology* **2**, 95-125.
- Wagner, W.; Elejabarrieta F. & Lahnsteiner I. (1995): "How the sperm dominates the ovum- Objectification by metaphor in the social representation of conception", *European Journal of Social Psychology* **25**, 671-688.
- Wagner, V.; Valencia J.F. eta Elejabarrieta F. (1996): "Estabilidad en las representaciones sociales de la paz y guerra en dos países", *Revista de Psicología Social y Personalidad* **10** (2), Mexiko, 123-143.
- Wagner, W.; Kronberger, N. eta Seifert, F. (2002): "Collective symbolic coping with new technology: Knowledge, images and public discourse", *British Journal of Social Psychology* **41**, 323-343.
- Zubieta, E. (2001): *Representaciones Sociales de la Inteligencia: un afrontamiento Psicosocial*, Doktore-tesia, Departamento de Psicología Social, UPV/EHU, Donostia.